Goian adierazitako espedientearen instrukziogileak 2014ko uztailaren 9an ebazpen proposamena egin zuen. Ebazpen proposamen hori Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen irailaren 29an, hain zuzen ere 185.ean, ezinezkoa izan baitzen erruztatuari berariaz jakinaraztea. Horrela, bada, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen Zigortzeko Ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Eusko Legebiltzarraren Legearen 38 A eta 43. artikuluek zein Herri Administrazioen Araubide Juridikoa eta Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen 30/1992 Legearen 89. artikuluarekin bat etorrita,

Ikusita instrukziogilearen iritziz, eta Udaltzaingoaren parteak aintzat hartuta, honako egitate hauek frogatuta geratu direla:

1. 2014ko maiatzaren 4an, 12:30ean, 55 eta 59 zenbakidun udaltzainek herritar bat ikusi zutela Etxepare kalean paseatzen, txakurra aske zeramala. Txakurraren jabea Gorka Díez Fernández zen, 45629053C NA duena eta helbidea Eleuterio Villaverde 4, 1. A pisuan (Basauri) duena.

Ikusita Gorka Díez Fernández jauna jotzen dela ustezko arauhaustearen erantzuletzat, kalteak eragin ditzaketen animaliak behar bezala ez zaintzeagatik. Eta Gorka Díez Fernándezek ez duenez alegaziorik aurkeztu, horretarako emandako epean.

Ikusita instrukziogilearen iritziz, hemen jasotako egitateek animaliak edukitzeari eta arriskutsuak izan daitezkeen animalien erregimen juridikoari buruzko indarreko Udal Ordenantzaren 46 c) artikuluan aurreikusitako arau-haustea eragin dezaketela.

Kontuan hartuta aipatutako Udal Ordenantzaren 52. artikuluak zigorren muntei buruz eta 54. artikuluak zigorren mailakatzeari buruz ezarritakoa, zigorra mailarik txikienean eta 30,00 euroko muntarekin aplikatzea dagokiola. Ez da beharrezko jotzen Ordenantzaren 55.2 artikuluak aurreikusitako zigor osagarriak ezartzea.

Apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 artikuluan ezarritako lege eskumenak erabilita, eta instrukziogileak egindako proposamena ikusita, Alkatetza honek zera

ERABAKI DU:

*Lehenengoa:* Gorka Díez Fernández jaunari 30,00 euroko isuna ezartzea, animaliak edukitzeari eta arriskutsuak izan daitezkeen animalien erregimen juridikoari buruzko indarreko Udal Ordenantzaren arau-hauste arina egin izanagatik (46 c) artikulua), kalteak eragin ditzaketen animaliak behar bezala ez zaintzeagatik.

*Bigarrena:* Interesdunari ebazpen honen berri ematea.

Basaurin, 2014ko azaroaren 14an.—Alkatea, Andoni Busquet Elorrieta

(II-7759)

Vista la Propuesta de Resolución de fecha 9 de julio de 2014 que formula la Instructora del expediente de referencia, que fue publicada en el «Boletín Oficial de Bizkaia» número 185, de 29 de septiembre de 2014, tras no haber sido posible notificarla expresamente al inculpado, y de conformidad con lo dispuesto por los artículos 38 A y 43 de la Ley 2/1998 de 20 de febrero del Parlamento Vasco, de Potestad Sancionadora de las Administraciones Públicas y el artículo 89 de la Ley 30/1992 de Régimen Jurídico y Procedimiento Administrativo Común, y

Resultando que a juicio de la instructora, vistos los partes de incidencias de la Policía Local, quedan acreditados los siguientes hechos:

1. Que el día 4 de mayo de 2014 a las 12:30 horas por parte de los agentes números 55 y 59 se observa la presencia de un vecino paseando un perro suelto por la calle Venta Etxepare, resultando ser el propietario del mismo don Gorka Díez Fernández, con DNI 45629053C y domicilio en Basauri, calle Eleuterio Villaverde, 4, 1.º A.

Resultando que se considera responsable de la infracción a don Gorka Díez Fernández, por no mantener la debida diligencia y guarda de animales que puedan causar daños, en el cual en el plazo concedido al efecto no ha presentado alegación alguna.

Resultando que a juicio de la Instructora, los hechos relatados son constitutivos de una infracción recogida en el artículo 46 c) de la Ordenanza Municipal Reguladora de la Tenencia y Protección de Animales Potencialmente Peligrosos,

Considerando: Que atendiendo al capítulo de las sanciones establecidas en los artículos 52 sobre cuantía de las sanciones y artículo 54, sobre criterios de graduación de la mencionada Ordenanza, procede imponer la sanción en su grado mínimo y en su importe de 30,00 euros. No se aprecia la necesidad de imponer sanción accesoria alguna de las previstas en el artículo 55.2 de la Ordenanza. sin a procede imponer la sanción accesoria alguna de las previstas en el artículo 55.2 de la Ordenanza.

En el ejercicio de las facultades legalmente establecidas en el artículo 21.1 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, y visto la propuesta realizada por la Instructora del expediente, esta Alcaldía

DISPONE:

*Primero:* Imponer a don Gorka Díez Fernández, una sanción pecuniaria de 30,00 euros por la comisión de una infracción leve (artículo 46 c) de la Ordenanza Municipal Reguladora de la Tenencia y Protección de Animales y del Régimen Jurídico de Animales Potencialmente Peligrosos, por no mantener la debida diligencia y guarda de animales que puedan causar daños.

*Segundo:* Notificar la presente resolución al interesado.

En Basauri, a 14 de noviembre de 2014.—El Alcalde Andoni Busquet Elorrieta

(II-7759)

•

**Udalaren 2014ko Enplegu Publikoaren Eskaintza onartzea.**

Basauriko alkateak, 2014ko azaroaren 14an, 3507/2014 zenbakidun Dekretu hau eman du:

*Lehenengoa:* Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutua arautzen duen apirilaren 12ko 7/2007 Legearen 70. artikuluak eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/89 Legearen 22. artikuluak zera xedatzen dute: aurrekontuan diru-kopurua esleitua duten giza baliabideak hornitzeko langile berriak sartu behar badira, Enplegurako Eskaintza Publikoa egingo dela, betiere plantillan gertatutako aldaketak ikusita eta udal arloetako ordezkaritzek proposatutako langile premiak aztertuta. Hori guztia aintzat hartuta, Udalaren 2014ko Enplegu Publikoaren Eskaintza onartzen da, Erabaki honen Eranskinean ezarritakoaren arabera.

*Bigarrena:* Enplegurako Eskaintza Publikoa bat dator Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko 22/2013 Legearen 21. artikuluak 2014rako jasotako irizpideekin. Izan ere, langile berriak hartuko dituzten lanpostuen kopurua, guztira, Udaltzaingoan berritu beharreko lanpostu-tasaren %100en parekoa izango da eta.

**Aprobación de la Oferta de Empleo Público de la Corporación para el año 2014.**

El Alcalde del Ayuntamiento de Basauri, con fecha 14 de noviembre de 2014, dictó el siguiente Decreto número 3507 /2014:

*Primero:* De conformidad con lo establecido en el artículo 70 de la Ley 7/2007, de 12 de abril, del Estatuto Básico del Empleado Público y artículo 22 de la Ley 6/89, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca, que establecen que las necesidades de recursos humanos con asignación presupuestaria que deban proveerse mediante incorporación de personal de nuevo ingreso serán objeto de Oferta Pública de Empleo, a la vista de las variaciones producidas en la Plantilla y estudiadas las necesidades de personal planteadas por las Delegaciones de las Áreas Municipales, se dispone la aprobación de la Oferta de Empleo Público de la Corporación para el año 2014, conforme a las prescripciones que se contienen en el Anexo al presente Acuerdo.

*Segundo:* La Oferta de Empleo Público resulta adecuada a los criterios que señala el artículo 21 de la Ley 22/2013 de Presupuestos Generales del Estado para el 2014 en el sentido de que el número total de plazas de nuevo ingreso será como máximo, igual al 100% de la tasa de reposición de efectivos de la Policía Local.

cve: BAO-BOB-2014a234

*Hirugarrena:* Era berean, eta 22/2013 Legearen 21 bat 2 c) artikuluan ezarritakoa betetzeari dagokionez, zorpetze-mugak ez dira gainditzen eta bete egiten da aurrekontu- zein finantza-egonkortasunaren printzipioa. Beste alde batetik, 2014ko urriaren 30ean Ekonomia eta Finantza Plana onartu zen eta, bertan, 2014ri dagokion Enplegurako Eskaintza Publikoa ere aurreikusi zen, aurrekontu egonkortasunaren printzipioa bete egiten dela agerian utzita. 2014ko Enplegurako Eskaintza Publikoaren deialdia egin aurretik, ordea, aipatutako Ekonomia eta Finantza Plan hori Bizkaiko Foru Aldundiaren aurrean egiaztatu beharko da.

*Laugarrena:* Enplegurako Eskaintza Publiko honetan ez da lanpostuen %7 gordetzen urritasuna dutenek betetzeko, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutua arautzen duen 7/07 Legearen 59. artikuluak hala aurreikusten badu ere. Horren zergatia da lanpostuak udaltzainenak direla, hau da, gaitasun psikofisiko gorena eskatzen dutenak: urritasunak, edozein gradutan, eragotzi egiten du lanpostu horien berezko eginbeharrak egokiro betetzea.

*Bosgarrena:* Enplegurako Eskaintza Publikoan jasotako plazei dagozkien hizkuntza eskakizunak Eranskinean ezarritakoak izango dira, Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Legearen V. Tituluan (Hizkuntza Normalizazioa) eta Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioetan euskararen erabilera arautzen duen apirilaren 15eko 86/97 Dekretuan jasotakoa betetze aldera; kontuan hartuta Enplegurako Eskaintza Publikoaren deialdia plazak betetzera zuzenduta dagoela, ez zuzenean lanpostuak; eta aintzat hartuta lanpostu horien hizkuntza eskakizunak Udalaren indarreko lanpostuen zerrendan finkatuta daudela, Eusko Jaurlaritzaren organo eskudunek bere garaian egindako txostenarekin bat etorrita.

Hizkuntza eskakizuna ezarrita daukaten plazetan (hizkuntza eskakizun hori dagokion deialdian zehaztuko da), derrigorrezkoa izango da hizkuntza eskakizun hori egiaztatzea Udalean lanean hasteko. Egiaztatzea, berriz, Oinarrietan zehaztuko den moduan egin beharko da.

Gainontzeko plazetan, euskararen ezagutza meritu gisa hartuko da: hautatze-prozesuan zehar gehienez ere lor daitezkeen puntuetan portzentaje bat izango du, gutxienez %5ekoa eta gehienez %20koa, jarraian adierazitako eskala honen arabera:

— 1. eta 2. perfilak: %5 - %10
— 3. eta 4. perfilak: %11 - %20

ERANSKINA

**ENPLEGU PUBLIKOAREN ESKAINTZA, 2014**

Sarrera libreko sistema

—Taldea (7/07 Legearen artikuloaren arabera): D (C2).
—Sailkapena: Eskala: Administrazio Berezia. Azpi-eskala: Zerbitzu Bereziak. Klasea:
  • Udaltzaingoa.
—Lanpostuaren deskribapena: Udaltzaina.
—Plaza kop.: 4.
—HE: 2.

Lanpostuetara sartzeko prozedura eta baldintzak dagokion deialdian zehaztuko dira.

Barne-sustapeneko sistema

—Taldea (7/07 Legearen artikuloaren arabera): C (C1).
—Sailkapena: Eskala: Administrazio Berezia. Azpi-eskala: Zerbitzu Bereziak. Klasea:
  • Udaltzaingoa.
—Lanpostuaren deskribapena: Lehen Agentea.
—Plaza kop.: 1.
—HE: 2.

Lanpostuetara sartzeko prozedura eta baldintzak dagokion deialdian zehaztuko dira.

Basaurin, 2014ko azaroaren 26an.—Alkatea, Andoni Busquet Elorrieta

(II-7721)

*Tercero:* Asimismo, en cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 21 uno 2 c) de la Ley 22/2013 se cumplen los requisitos en materia de no superación de límites de endeudamiento y cumplimiento del principio de estabilidad presupuestaria y sostenibilidad financiera y se ha aprobado mediante Acuerdo Plenario de fecha 30 de octubre de 2014 un Plan Económico Financiero en el que se incluye la medida de Oferta de Empleo Público correspondiente al año 2014 y se pone de manifiesto que se da cumplimiento al principio de estabilidad presupuestaria. Dicho Plan económico Financiero deberá ser acreditado ante la Diputación Foral de Bizkaia, con carácter previo a la aprobación de la convocatoria de las plazas de la Oferta Pública de Empleo 2014.

*Cuarto:* En la presente Oferta de Empleo Público no se realiza la reserva del 7% de plazas para su cobertura entre personas con discapacidad, prevista en el artículo 59 de la Ley 7/07, del Estatuto Básico del Empleado Público, dado que las plazas corresponden a agente de policía local que requieren el grado máximo de capacidad psicofísica, lo que supone que cualquier grado de discapacidad, física o psíquica, impide el adecuado desempeño de las tareas y funciones correspondientes a las mismas.

*Quinto:* A fin de proceder al cumplimiento de lo dispuesto en el Título V de la Ley 6/1989, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca relativo a la Normalización Lingüística y en el Decreto 86/97, de 15 de abril, por el que se regula el uso del euskera en las Administraciones Públicas de Euskadi, aún considerando que la Oferta Pública de Empleo se dirige a la convocatoria de plazas y no directamente de los puestos de trabajo, cuyos perfiles lingüísticos constan en la vigente Relación de Puestos de Trabajo de la Corporación de conformidad con los correspondientes informes emitidos en su día por los órganos competentes del Gobierno Vasco, los perfiles lingüísticos de las plazas contempladas en la Oferta de Empleo serán los que se establecen en el Anexo.

En las plazas que llevan aparejado perfil preceptivo, que se concretará en las correspondientes convocatorias, el cumplimiento del mismo será exigencia obligatoria para el acceso y su acreditación se llevará a efecto en la forma que se determine en las Bases de las mismas.

En las restantes plazas el conocimiento del euskera será considerado mérito y representará un porcentaje que no podrá ser inferior en ningún caso al cinco por ciento ni superior al veinte por ciento de la puntuación máxima alcanzable en el resto del proceso selectivo, con arreglo a la siguiente escala:

— Perfiles 1 y 2: del 5% al 10%.
— Perfiles 3 y 4: del 11% al 20%.

ANEXO

**OFERTA DE EMPLEO PUBLICO CORRESPONDIENTE AL EJERCICIO 2014**

Sistema de acceso libre

— Grupo (según artículo Ley 7/07): D (C2).
— Clasificación: Escala de Admón. Especial. Subescala de Servicios Especiales. Clase:
  • Policía Municipal.
— Descripción de la plaza: Agente P. M.
— Número de plazas: 4.
— Perfil: 2.

Las correspondientes convocatorias concretarán el procedimiento y los requisitos para el acceso a las plazas ofertadas.

Sistema de promoción interna

— Grupo (según artículo Ley 7/07): C (C1).
— Clasificación: Escala de Admón. Especial. Subescala de Servicios Especiales:
  • Clase Policía Municipal.
— Descripción de la plaza: Agente Primero.
— Número de plazas: 1.
— Perfil: 2.

Las correspondientes convocatorias concretarán el procedimiento y los requisitos para el acceso a las plazas ofertadas.

En Basauri, a 26 de noviembre de 2014.—El Alcalde, Andoni Busquet Elorrieta

(II-7721)

cve: BAO-BOB-2014a234